

Santi Leone

Lugares comunes, idées reçues

Frantsesak eta gaztelaniak modu bana dute “klixea” edo “topikoa” izendatzeko. *Lugar común*, leku komuna, da kontzeptu hori adierazteko gaztelaniaz erabil daitekeen esapidea, eta haren gibelean komunitatea sumatzen ahal dugu. Giza talde guzietan erreferentzia komunak, konpartituriko fobiak eta filiak, zaletasunak eta gorrotoak, behar baitituzte, taldeko kide guzietan batzen dituzten gune idealak. Frantsesez, berriz, *idées reçues* esapidea baliatzen dute, eta atzean tradizioa igar daitekeela erranen nuke: iraganetik, arbasoengandik ailegatu zaizkigun ikuspuntuak edota iritziak dira jasotako ideia horiek –barkatu itzulpen traketsa–.

Gizarte bat trinkotzen dituzten leku komunak joandako belaunaldien herentzia izaten ohi badira, tradizioz onartutako ideiak jendearen elkargune dira normalean, eta, ondorioz, biak ala biak, *lugares comunes* direlakoak eta *idées reçues* izenekoak, ezinbertzekoak ditugu edozein giza taldetan. Biek bidea erraztu eta aitzina egiten laguntzen digute, haiei buruz pentsatu behar ez izateak arreta bertzelako kezketan paratzea posible egingen digulako, arrainek itsasoan mugitu baina itsaso pentsagai ez duten bezalaxe. Orain arte errandakoa onartuz gero, iduri luke, gizarte bat aldatzekotan, lehen pausoa haren leku komunak, haren jasotako ideiak aztertu eta zalantzan jartzea izan beharko litzakeela.

Bere historia laburrean, Nafarroan gaur egun nagusi den ideologiak, alegia *navarrismoak*, hiru garaipen handi izan ditu. Lehendabizikoa, euskal abertzaletasuna kanpoko indar gisa ikusaraztea izan da: prentsa irakurrita, hori da irudi nagusia Espainian, baina hori da Nafarroan berean ere nahiko hedaturik egon den eta oraindik dagoen ikuspuntua. 1920ko hamarkadan Bilboko zenbait bulegotatik ailegatzen zitzaizkien agindua abertzale



MIKEL SAINZ

nafarrei (Victor Pradera politikari *navarristaren* aburuz), eta Trantsiziotik hona Gipuzkoatik etorri izan dira manifestariez beteriko autobusak (*Diario de Navarra* egunkariaren arabera).

Euskal abertzaletasuna iraitzia, espainolismoa definitzea izan da *navarrismoaren* bigarren garaipena. Hau da, batek irudika dezake –edo nik, behinik behin, nire xalotan irudika dezaket– espainolismo tolerantetate bat, arerioa errespetatzeko gai dena. Gurean, ordea, espainolismo intolerantea bultzatzeaz gain, hori espainolismo mota zilegi bakarria izatea lortu du *navarrismoak*. Hortik mugitzen denari berehala leporatuko zaio “kanpoko” indarrekin bat egin nahian ibiltzea.

Hirugarren garaipena, arestiko bi puntu horiek nafar anitzen leku komun bihurtu izana izan da, *Diario de Navarra* ez baitu ehun urte alferrik bete. Horrela, bada, eginga dago tranpa. Alde batetik, euskal nazionalismoa mendebaldetik iristen zaigun gaitza da eta, bertzetik, horren aitzinean UPNk defendatzen duen ideologia erantzun legitimo bakarria da. Are gehiago, ideologia hori ez da ideologia, nafar onen izaeraren adierazpena baita. Ollarra *Diario de Navarra*ko zuzendari ohiak behin erran zuenez: “Ni ez naiz navarrista, nafarra baizik”.

Navarrismoa, beraz, gure *idée reçue* bilakatu zaigu, gure itsaso partikularra, pentsagai izan gabe –ez baita existitzen– gure mugimenduak ahalbidetzen dituen ur kutsatu gabea.

Hondar hauteskundeek nahiko argi utzi dutenez, orain bertze espainolismo bat asmatu beharra dago Nafarroan, bertze mota batekoa, Nafarroako aniztasuna errespetatzen dakiena eta, paradoxa posible bada, Espainiari hain lotua ez dagoena. Hain argi ez dagoena zera da: egin behar dutenak berrasmatzeko lan hori egiteko prest ote dauden. Ikusi beharko. ■

Hondar hauteskundeek nahiko argi utzi dutenez, orain bertze espainolismo bat asmatu beharra dago Nafarroan, bertze mota batekoa, Nafarroako aniztasuna errespetatzen dakiena eta, paradoxa posible bada, Espainiari hain lotua ez dagoena